

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

34. zenbakia

Data 1989-02-20

966 orria

USURBIL UDALERRIKO ASTEROKO FERIAREN ARAUTEGIA

I.KAPITULUA

1. Artikulua.

Arautegi honen helburua Usurbilgo Asteroko Feriaren erregulaketa, antolakuntza, zuzendaritza eta kontrola dira.

2. Artikulua.

Hasteko, edozein produkturen salmenta baimendurik dago, baldin eta berauei aplikagarri zaizkien arautegi espezifikoak kunplitzen badira, salbu arrain eta haragia, freskoa ala izoztua izan.

Aditzera emanek jakien saltzaileek beren postuak egungo sanital arautegiari behar diotela egokitu eta lerro nagusietan Arautegi honen eranskinean dutela.

Udal honetako Zerbitzuen batzordeak berekin dauka postu desberdinetan zein produktu salduko den hautatzeko eskubidea, beti ere saltzaileen eskabidea kontutan hartuz eta nola nahi ere herriaren interes orokorraren arabera jokatzuz.

3. Artikulua.

a) Feria hau asteazken goizetan ospatuko da, eta asteoro. Baldin Feria ospatzeko izendaturik dagoen eguna jaiegun izango baitz, biharamunera aldatuko da.

b) Feriaren ordutegian postuak muntatzeko 7,30/8,00 bitarte izendatzen da eta arratsaldeko 8,00/13,00 bitarte produktuen salmentarako eta 13,00/13,30 bitarte postuak erretiratzeko. Dena den, Udalak berekin edukiko du aipaturiko Feria horren ospakuntzaren data egunez aldatzeko eskubidea, eta are, herriaren interesek hala eskatzen dutenean Feria ezabatuzeko, inola ere adjudikatariek indemnizazio eskubiderik izango ez dutelarik.

c) Ezein saltzailek baimendurik badago bere ekintza Feria honetan burutu ahal izateko, gaindituko ditu ez gutxiegia eta ez gehiegia b) atalean aipaturiko ordutegiak.

d) Behin partzelak mugatuz gero, adjudikapena ondoko irizpide hauen arabera burutuko da.

- Eskabidearen arabera kreditaturiko aintzinasuna.
- Eskaintzen den produktuaren arabera, lekuko produktuak saltzen dituztenek lehentasun osoa izango dutelarik.
- Bizitegiaren arabera, Usurbilen bizitzea.
- Familiako aldagarritasunaren arabera.
- Feriaren arabera kreditaturiko aintzinasuna.

4. Artikulua

Feria honetara postua muntatzeko ordutegiaz kanpo etortzen den saltzaileak, bere merkantziak eskuz eraman beharko ditu ibilgailutik postura. Ibilgailuak, deskargatuz gero, feriaren esparrutik kanpo utiziko dituzte (K/Nagusia, kamioien aparkalekuan), salbu bere ibilgailua salmentarako mahai gisa moldaturik dutenak.

5. Artikulua.

Feriara ez azaltzeko arrazoia Udaletxean behar da adierazi feria ospatzen den eguneko eguerdiko 12 orduak baino lehen. Abisua hartuz gero, arautegi honetan ezarri baldintzen arabera Udalak partzela adjudikatuko du. Esan duguna kunplitzen ez duenak abonaturik daukan tasa galdu egingo du.

6. Artikulua.

Salmentak feria egiteko Udalak izendatzen duen espazioaren barne burutuko dira eta bakoitzak Udalak espreski izendatzen duen lekuan, nola lekua hala espazioa alda daitezkeelarik momentuko beharren arabera, beti ere Udalak bere erabakia saltzaileei alde aurretik adieraziko dielarik.

7. Artikulua.

Usurbilgo asteroko feria ospatuko den lekumena Udalak ezarriko du; etorkizunean feria hau lekualda dezake, baldin momentuko beharrek hala agintzen badute.

8. Artikulua.

Udalak behar diren seinaleztapenak ezarriko ditu, postu desberdinak mugatzeko, beren jabeei ezin aldatuzko zenbakia emango zaielarik eta berdin neurriari dagokionean.

9. Artikulua.

Salgai guztiak bereizkuntzarik gabe, salbu pisu eta bolumen handikoak, publikoari erakustera emanik egon behar dute, inola ere lurraren gainean jartzea izango ez delarik.

10. Artikulua.

Behin Udalak onartuz gero, postuak finkotzat emango dira. Horretarako, zenbaki konkretu bat emango zaio bakoitzari eta lekumena izendatuko.

11. Artikulua.

Asteroko Feriaren antolaketa eta zuzendaritza, Zerbitzuen Batzordeari gomendaturik izango da, zeinak beharko duen feriarekin ikustekorik duen edozein murtzilo jaso eta Arautegi honetako edukinen arabera erabakiak proposatu.

II.KAPITULUA

BAIMENA LORTZEA, BIDERATZEA ETA ERAMATEA

12. Artikulua.

Usurbilgo Asteroko Ferian salmentak burutu ahal izateko, agindurik den udal baimena behar da eskatu, horretarako ondoko dokumentazioa entregatu behar delarik:

- a) Eskabidea Alkate-Lehendakariari zuzendua, behar den moduan erregistraturik.
- b) N.A.N.ren fotokopia.
- c) Lizentzia Fiskalaren fotokopia zeinak urteko behar duen izan eta salgai den merkantziari dagokiona.

- d) Fotokopia justifikagarria, Aseguru Sozialean alta emanik egoteari dagokionean.
- e) Sanital gidagiria, beharrezko duten jakien salmentarako, delako baimen horren fotokopia aurkeztu behar duelarik.
- f) Atzerritarren kasuan, beharko dute kreditatu gainera, egoitz baimenaren jabe izatea eta bere kontura lanean ari denaren baimena, indarreango legearen arabera.
- g) Udal tasak eguneraturik edukitzea.

13. Artikulua.

- a) Baimen eskabideak aurreko artikulua a) atalean adierazirik dagoenaren arabera aurkeztuko dira, Usurbilgo ferian salmenta egiten hastea nahi den data baino 15 egun lehenagotik.
- b) Aurkezturiko baimenak ikusirik eta aurreko artikuluan eskatzen diren baldintzak kunplitzen direla egiaztatu ondoren, Udal Zerbitzu Batzordeak Alkate jaunari proposatuko dio eskaturiko baimena ematea.

14. Artikulua.

Usurbilgo Ferian salmentarako postu finkoetan, ezinbesteko baldintza da aurrez aipaturiko salgaietan baimena edukitzea, Alkate jaunak, Udal Zerbitzu batzordearen proposamenez, ezaba dezakeelarik, inolako indemnizazio edo konpentsaziorik eskatzeko eskubiderik gabe, Arautegi honetan erregulatu arazoien arabera.

15. Artikulua.

Baimenaren iraupena urtebetekoa izango da, epe horren amaieran berriztatu behar delarik, eta berritzeko ezinbestekoa izango da 12. artikuluan, kasu desberdinen arabera, eskaturiko dokumentazioa aurkeztea.

16. Artikulua.

Udal baimenak pertsonalak izango dira eta oro har transferiezinak. Jabetzaren aldaketa bakoitzean kontzesionariak, familiakoa baldin bada ere, baimen berria eskatu beharra du. Nolanahi ere, aditzera eman ditzake bidezko direla uste duen xehetasunak postuaren jabegoa lortu ahal izateko.

III.KAPITULUA

DEBEKUAK, BAIMEN ESEKITZEAK ETA BIDERAPENA

17. Artikulua.

Arrunt debekaturik gelditzen da salmenta ibiltaria horretarako ezarrita dagoen Feriaren esparrutik kanpo.

18. Artikulua.

Debekaturik dago bakoitzak bere postutik kanpo bere merkantziak hedatzea, eta publikoarentzako pasabidea eragozteak. Hala berean, debekaturik dago baita kartoiak edo hondakinak zonalde horietan ipintzea.

19. Artikulua.

Arrunt debekaturik gelditzen da Feriaren barne, haragi freskoaren, eta izoztuaren salmenta, eta hala berean arrainaren salmenta ere dena delarik honen modalitatea, salbu arrain gazitua.

20. Artikulua.

Debekaturik gelditzen da publizitate molde oro ohizkoaz kanpo, (hau da, salbu produktuen erakusketa eta ahozko erakarpena), eta beraz ez da zilegi izango sistema megafoniko eta inolako musikagailurik.

21. Artikulua.

Feriaren esparru barne ez daiteke inolako ibilgailurik lekutu, salbu eta Arautegi honen 4. artikuluan seinalatzen direnak.

22. Artikulua.

Arrunt debekaturik gelditzen da hirugarren bati postua lagatzea.

23. Artikulua.

Baimena ondoriorik gabe geldi daiteke Alkatearen aginduz, Udal Zerbitzu Batzordeak proposaturik, ondoko kausa hauetariko bat gertatzen denean:

- a) Baimenaren jabe denak borondatez uzten duenean, zeinak Udalari idatziz jakinaraziko dion.
- b) Postua azpierreentatzeagatik.
- c) Baimenean izendaturik ez dauden produktuak saltzeagatik.
- d) Tasak ez ordaintzeagatik, kausa justifikaturik gabe.
- e) Lau astetan segidan Ferian ez azaltzeagatik edo bost txanda aldizkatuetan, urtebetean zehar kausa justifikaturik gabe.
- f) Arautegi honetan ezarrita dauden debekuren batetan erortzeagatik.
- g) Zerbitzu batzordeak larritzat eman beste edozein kausagatik, beti ere hau baimena kentzeko justifikagarri izango delarik.

24. Artikulua.

- a) Udal Zerbitzu Batzordeak, behin Arautegi honetan tipifikaturiko edozein kasuren berri jakinez gero, Alkate jaunari proposatuko dio emaniko baimenaren esekitze zentzagarria, harik eta aztertzen eta proposatzen den arte burutu duen hausteagatiko zigor aplikagarria.
- b) Adierazi den arazoaz salakuntza diktaminatu ahal izateko, Zerbitzu Batzordeak Elkarrizketa emango dio interesatuari, berak onerizten dion arrazoiak adierazi ditzan.
- c) Interesatua entzunik eta praktikatu zaion salakuntzaren aurrean, eta halaber zerbitzu batzordeak bilduriko argibideen arabera, baimenaren esekitze erabakiorra edo behin behinekoa diktaminatzera joko du, delako esekipen hori indarrean jarriko delarik interesatuari jakinarazten zaion hurrengo egunetik.
- d) Baimen esekipenari buruzko akordioaren kontra Alkategoaren aurrean posible izango da Birjarpen errekurtsua esekipena jakinarazten denetik hasita hilabeteko epearen barne ipintzea. Delako Errekurtsu horretan argi eta garbi kontrako nahiz aldeko arrazoiak azalduko dira Errekurtsuaren argigarri.

IV.KAPITULUA

FERIAREN ARDURA ETA TASEN ORDAINKETA

25. Artikulua.

Asteroko Feriaren begirapena Udaltzaingoari gomendaturik dago, zeinak ikuskatuko duen eta arautegi hau kunpli dadin ardura hartuko duen.

26. Artikulua.

Tasen ordainketa hiru hilabetero, aurretiaz, burutuko da, Udaletxeko bulegoetan (Bilketa saila) hiruhilabetekoa baino zortzi egun lehenago.

Kuotak ordaindu ondoan, bale bat luzatuko da non ipiniko den dagokion postuaren zenbakia eta baliozko epea, zeina Udaltzainei erakutsiko zaien eta hauek egunari dagozkion kupoiak erretiratuko dituzten, Feriara etorri izana justifikatuz.

27. Artikulua.

Udaltzainek Feriaren kontrola eraman ahal izateko saltzaileen zerrenda edukiko dute kuota eta modalitateen xehetasunez horniturik, postu bakoitza eta saltzailea identifikatzearren.

V.KAPITULUA

SALTZAILEEN BEHARKIZUNAK

28. Artikulua.

Saltzaileak beharturik daude:

- a) Udaltzaingoaren errekerimenduak obeditzera.
- b) Publikoari beharrezko errespetua gordetzera.
- c) Zigorgarri diren merkatal eragiketak ez burutzera.
- d) Eztabaidarik ez sortzera, eskandalorik edo inolako iskanbilarik Feriaren esparru barnean.
- e) Sanital ikuskapenak jasatera eskudun agintariak erabakirik dutenaren arabera.

29. Artikulua.

Espaloietan, zuhaitzetan edo beste instalazioetan urraturik kausatzen duen edonork beharko du 15 eguneko epe gehiengoan konponketaren zenbatekoa ordaindu, eta bestenez gerta dakizkioken zigorrez jabetu beharko du.

30. Artikulua.

Feria amaitzen denean, lekua guztiz garbi geldituko da paperik, kaxarik edo barazki eta fruituen hondakinik gabe. Horretarako zabor hondakin guztiak behar bezala bildurik Udalak finkatu leku berezietan ipiniko dira.

31. Artikulua.

Udalak berekin edukiko du postuen % 10 adkudikatzeko eskubidea, garaiko produktuen salmentarako.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.

Usurbilgo asteroko Feriarekin zer ikusirik duen edozein pertsona edo erakunderi dagokio Arautegi haun, berari dagozkion ekuntzen arabera.

Kalteren bat egin edo ordena publikoan nolabaiteko eragozpena sortu edo Merkatuko Disziplinari buruzko Ordenantza edo Arautegi hau hautsiko lukeen oro alkatetzak 10.000 pezetarainoko isunarekin zigortuko du (kopuru ori urteko KPI ari aplikatuz Ordenantza hau onartzen den urtetik aurrera).

Bigarrena.

Arautegi honetan xedaturik ez dagoenari buruz “Merkatal Ekintzaren Antolakuntza” Legeak 1983/8 maiatzak 19an ezarri aginduetara eta beste xedapenetara bilduko da, eta halaberean Udalak eta eskudun Organismoek gai honetan harturiko erabakietara.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Usurbilgo Udalerriko Asteroko Feriaren Arautegia indarrean sartzearekin amaituko da aurreko arautegia, 1981 martxoak 5 datarekin 5/81 zenbakidun Udal Batzarrean onartua, eta asteroko Feriaren garapen eta kontrolerako zeuden xedapen guztiak.

I.ERANSKINA

I.- HARAGI PRODUKTUEN SALTOKIAK

Kontsumitzaileei gerta liezaizkiekeen arriskua ekiditzeko soilki saldu ahal izango dira hesteki onduak eta behar bezala etiketatuak eta jendaurrera emanak, eta hala berean inolako manipulaziorik gabe (zaticatzea) jasateke, baizik eta pieza osotan komertzializatuko dira, eskuak garbitzeko eta tresnak desinfektatzeko sistemarik ez bait da.

“S.A.T., Haragi produktu eta eratorri prestatuen ontziratzaileen Industria, Askoka moduko biltegiari dagokienean eta haragi produktu prestatuen gutxika moduko merkatal establezimenduei buruzkoa”.

E.D. 3791/84 E.A.O. 81.2.27

II.- PARTIZA SALTOKIEN BALDINTZAK

Konfiteria, gozogintza, opilgintza eta erreposteriko produktuak sal daitezke ontziratu gabe, soilik berauentzako bakarrik den salmentarako baimena duten establezimenduetan eta beste elikagaiekin batera saltzeko baimena dutenetan.

Gozogintza, konfiteria, opilgintza eta erreposteraren S.A.T.

E.D. 2419/78 E.A.O. 78.10.12

III.- ARRAULTZEEN SALTOKIA

Arraultzek Oilategi edo Zentru sailkatzaile eta baimendurikoetatik izan behar den etiketa nahiz Sanital Erregistro zebakidun egokiz.

Arraultze eta arraultzegaien S.A.T.

E.D. 408/75 E.A.O 75.3.12

IV.- ENKURTITUEN SALMENTA

Parrastango mahai olibak garraiatzen dituzten ontziek garbierraza diren materialekoak izan beharko dute eta ez inolaz ere pozoapen edo kutsapena sortzeko gai izan daitezkeenetakoak. Produktu ontzi hauen etiketatuaren informazioak, derrigorrez honako zehazpenak izan beharko ditu:

- Produktuaren deitura.

- a) Oliba.
- b) Barietatea.
- c) Mota.
- d) Aurkezpena.

- Osagaien zerrenda.

- Eduki garbia.

- Daten markatzea, non gutxieneko iraupen data ageriko den hurrengo esakune honen bidez “...baino lehenago kontsumitu”, urtea ere ipiniz.

- Enpresaren identifikapena.

- Merkatal maila.

- Kalibre edo kalibre elkartea.

“Mahai oliben S.A.T.”

E.D. 1074/83 E.A.O. 108, 1983ko maiatzak 6.

V.- GAZTA SALMENTA.

Merkatutxoko gazta saltokiak, behar bezala etiketaturik eskaini beharko dira, alegia, gazta ondu eta osoak direnak soilik, hau da, ezein manei u moetarik (zatikatua) gabe, eskuen eta tresnen garbitzeko urik ez denez.

“S.A.T. Esne eta esnekien industria, biltegitratze, garraio eta merkaturatzeari dagokienenan”.
E.D 2561/82 E.A.O. 82.9.24

VI.- FRUITU LEHOR ETA GOZOKIEN SALMENTA.

Produktu hauen salerosle gutxikariei zilegi zaie ontzien irekiera, horrala produktu hauek zatikatuta sal ditzakete, honako baldintza hauen peana:

- Ontzien etiketatuari dagokion informazioa, salmentaren bukaerara arte mantendu beharko dute, edozein momentuan produktuaren identifikapen egokia egin ahal izateko eta aipatu informazioa eman dakion horrela eskatzen duen erosleari.

- Produktuek banakako estalkirik ez dutenean, jendaurreko salmenta beirazko erakustapal estalietan edo ontzi babestuetan egin beharko da eta ez inolaz publikoa produktuetarako sarbiderik izateko moduan.
- Bitrina edo ontzi bakoitzean txarteltxo bat ipinita egon beharko du, non ikusteko moduan, era argi, ezabagaitz eta irakurterrazean honako informazioa idatziko den:
 - Produktuaren deitura.
 - Osagaien zerrenda.
 - Fabrikatzaile, ontziratzaile edo inportatzailearen izena edo elkarte-bidea edo deitura, eta dena den helbidea ipini behar da.
 - Enpresaren Sanital Erregistro zenbakia.

Produktu salmenta saltegi gutxikariko den pertsonalgoak bakarrik

egingo du eta tresna egokiak (pintzak, paletak, ...) erabiliko ditu, egingo dituen maneiuguztietan, azken ontziratzea barne.

“Karamelu eta txikleei buruzko S.A.T.”

E.D. 2179/1975 E.A.O. 75.9.13.